

KUTXABANK GESTION: INBERTSIO-FUNTSEN 2020KO BILAKAERAREN URTEKO TXOSTENA

Andaluzian ere aurrerapen esanguratsua izan zuen, eta **Kordoban % 31** gainditu zuen.

Kutxabank Gestioneak bere merkatu-kuota inbertsio-funtsetan % 39,2raino igo zuen Euskadin

- Ondarearen arabera, erakunde kudeatzailea % 10etik gora hazi zen ia merkatu guztietan, sektorea ia gorabeherarik gabe, % 0 inguruan, mantendu zen testuinguru batean
- Handitu egin zen inbertsio-funtsetara bideratutako aurrezkoa, gordailuekin alderatuta

2021eko abuztuaren 12a. INVERCO Inbertsio Kolektiboko Erakundeen eta Pentsio Funtzen Elkarteak aldizka ematen dituen datu ofizialetan oinarrituta, **Kutxabank Gestioneak** azterketa xehatua egin du **inbertsio-funtsen industriak 2020an** izandako bilakaera konparatiboari buruz.

Txostenak merkatu-kuoten arloz arloko bilakaera aztertu du, eta agerian utzi du **merkatu-kuotak** nabarmen egin duela gora inbertsio-funtsen segmentuan.

Erkidegoen arabera, merkatu-kuotaren hazkundera maximo historikoetatik gertu egon zen oro har. **Euskal Autonomia Erkidegoan** izan zen maximo historiko berria, portzentajezko **3,5** puntu hazi eta inbertsio-funtsen merkatuaren % **39** baino gehiago bildu ondoren. Nabarmentzekoa da funtsetan inbertitutako aurrezki osoaren % **53,8** metatu zutela Euskal Autonomia Erkidegoak, Madrilek eta Kataluniak, nahiz eta biztanleriaren % 35,1 izan.

Andaluzian ere igoera oso esanguratsua gertatu zen, eta, adibidez, merkatu-kuota % **31,1**etik gorakoa izan zen **Kordobako** probintzian. Biak batera hartuta, erakunde kudeatzaileak presentzia handiena duen bi eremuetako merkatuaren % **25,4** biltzen du.



Kudeatutako ondareari dagokionez, txostenaren arabera, Kutxabank Gestioneak % **13,08**ko bilakaera positiboa izan zuen, sektorea ia gorabeherarik gabe, % 0 inguruan, mantendu zen ingurune batean.

Gainera, Kutxabank Gestioneak % **10** baino gehiago hazi zuen ondarea berak diharduen ia merkatu guztietan.

Hazkunderik deigarrienak **Murtzian (% 23)**, **Errioxan (% 19)** eta **Valentzian (% 15)** gertatu ziren. **EAEn** kudeatutako ondarea % **14** hazi zen, eta **Andaluziakoa % 11**.

Horrela, merkatu-kuotaren % **5,17**ra iritsi zen, eta bere jarduerari **Fineco Kutxabankeko Banku Pribatuarena** gehituta, % **6,45**era. Horrela, ondare kudeatuaren arabera funtsen **bosgarren talderik handiena** bezala finkatu zen, **17.587 milioi euro**ekin guztira, aktiboak kudeatzeko ereduaren merkatuak duen konfiantzaren erakusgarri.

2020ko **ekitaldia salbuespenezkoa** izan zen Kutxabank Gestionentzat, merkatuaren bilakaerarik onena izan baitzuen harpidetza garbietan. Harpidetza garbietan Taldeko erakunde kudeatzailea buruan mantendu zen urte osoan, **1.200 milioi euro** baino gehiago bereganatu baitzituen, sektoreak hazterik ia lortu ez zuen testuinguru batean.

Handitu egin zen funtsak/gordailuak ratioa

Txostenetik ateratako beste ondorioetako batek azpimarratzen du **gordailuen aldean inbertsio-funtsetara** bideratutako aurrezkiaren bolumena handiagoa izan zela Kutxabank Taldearen kasuan industriaren gainerakoan baino (**% 36,1** eta **% 21,7**, hurrenez hurren), eta alde hori handitu egin zela 2020an, Kutxabank Gestioneak kudeatutako aktiboaren ondarearen hazkundera handiagoa izan zen eta.

Aurrezki-inbertsiorako bi tresnen arteko aldea ia autonomia-erkidego guztietan handitu zen, eta bereziki nabarmena izan zen **EAEn, Nafarroan eta Murtzian**.